



# Fitxa didaktikoa

## Egin gogoeta zure kontaktuei buruz!

☰ Zure lagunak kontatu dizunez...

Bi mutil hasi dira Facebooken niri jarraitzen, eta komentarioak jartzen dituzte nire argazkietan

Online joko batean ezagutu nindutela esaten dute, baina ez dakit nor izan daitezkeen

Ez dit grazia handirik egiten nire argazkiak ikusten ari izateak...

Eta are gutxiago komentatzen ari izateak!  
Zer egin dezaket?

Zer aholku eman diezaiokezu?  
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke

☰ Zure lagunak kontatu dizunez...

Oraintxe iritsi naiz ile-apaindegitik; ikusiko bazenu nola orraztu nauten!

Itxaron, argazki bat igoko dut Snapchatera, eta horrela taldekoek ere ikusiko dute; esango didazue nola ikusten duzuen.

Baina... ez dakit gelako guztiek ikustea nahi dudan, horiek ere jarraitzen didate-eta!  
Lotsa ematen dit "zuk dakizun horrek" ikustea...

Oraingoz zuekin bakarrik partekatu nahi dut.  
Zer egin dezaket?

Zer aholku eman diezaiokezu?  
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke

is4k INTERNET  
SEGURA  
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta gure laguntza-ildoak hemen: [www.is4k.es](http://www.is4k.es)





# Fitxa didaktikoa Egin gogoeta zure kontaktuei buruz!

## ERABAKI-ZUHAITZAK IKASGELAN ERABILTZEKO ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

- Erabaki-zuhaitza inprima dezakezu (hobeto A3 tamainan edo handiagoan), eta ikasgelan ikusteko moduan jarri, ikasleentzat eskuragarri egon dadin.
- Erabili fitxa honetako elkarrizketak ikasleak egoeran jarri ahal izateko, horrelako arazoak aurkituz gero zer erabaki hartuko luketen hausnar dezaten.
- Anima itzazu erantzun bakoitza justifikatzera:  
Zergatik hautatu duzu aukera hori?  
Zer ondorio izango lituzke beste moduren batean jarduteak?

### Osatu saioa ikasitakoa bereganatzeko beste jarduera batzuekin: ideia batzuk proposatzen dizkizugu!

- Interneteko gure kontaktuei buruzko eztabaida antolatzea: *"sare sozialetan kontaktu asko izatearen abantailak eta eragozpenak"*
- Horma-irudi bat sortzea, taldeka, Interneten gure kontaktuak ongi aukeratzeko aholkuak sormenez irudikatzeak.
- Interneten ikertzea zer arriskuri aurre egin behar diegun ezezagunen lagun-eskaerak onartzen ditugunean.
- Interneteko egunkarietan bilatzea sare sozialetako lagunen ondoriozko arazoak izan dituzten gazteen kasu errealei buruzko albistek.

Halaber, gure **baliabideak** eta **material didaktikoak** erabil ditzakezu jarduera zabaltzeko; hemen daukazu:  
[www.is4k.es](http://www.is4k.es)